

MUSIKA

BILBO

► **The Dickies, Caffeine.** Kafe Antzokian, 22:00etan.

DONOSTIA

► **Akordeoi orkestra.** Egiako kultur etxean, 19:30etan.

ELGOIBAR

► **Musikeskola.** Ikasleen kurtso bukaerako kontzertuak. Herriko Antzokian, 19:30etan.

IRUN

► **Kontserbatorioko Banda.** Amaia KZn, 20:00etan.

IRUÑEA

► **321 Sextet.** O'Connor's pubean, 23:00etan.

PASAIA

► **Ilunbe Akordeoi Orkestra, Pasaiako Txistu taldea.** Pasai Donibaneko parrokian, 20:15etan.

ANTZERKIA

BILBO

► **Gran Cinema.** Las Puppenherst Studio's taldearen eskutik, Bilborocken, 20:00etan.

DONOSTIA

► **Día de Clown-Po, Fragmentos.** Lugaritzeko antzerki tailerren eskutik, Lugaritz kultur etxean, 19:00etatik aurrera.

EIBAR

► **La mordaza.** Itzio antzerki tailerraren eskutik, Hezkuntza Esparruko Aretoan, 15:00etan.

GASTEIZ

► **La dama de Anboto.** Pantha Reiren eskutik, Hitz kultur etxean, 18:00etan.

LEIOA

► **Manicomic.** El Tricicle-Clownic taldearen eskutik, Sakonetan, 22:30etan.

ZINEMA-BIDEOA

AZPEITIA

► **Dhalagiri 8.167.** Manuel Penalvaren eskutik, Antzieta etxean, 20:30etan. Mendi astea.

BARAKALDO

► **Pecata Minuta.** Barakaldo Antzokian, 20:00etan eta 22:30etan.

BILBO

► **Laburmetrai zinemaldiko irabazleak.** Arriaga Antzokian, 20:00etan.

GASTEIZ

► **Desafio grabitatorioa 50 paraleloaren gainetik.** Goi-mailako mendizaletasunari buruzko jardunaldiak. Vital Kutxako kultur aretoan, 20:15etan.

BESTELAKOAK

Lur Ezpalak ikuskizuna, Bordaxuri taldearen eskutik. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, 19:30etan

Frantxoa Cousteau

• AKTOREA ETA MUSIKARIA •

«Hitzak du lehentasuna, antzerkilari garen aldetik, baina kantariak ere bagara»

MANEX ERDOZAINZIREN lana oinarri hartuta, Hazparneko Bordaxuri antzerki taldeak ikuskizun berezi bat eskainiko du gaur Donostian. Taldeko Txomin Hegik, Maddalen Estekahandik eta Frantxoa Cousteauk olerkiak errezitatuko dituzte, kantuan ere ariko dira, Karlos Gimenez pianoan lagun dutela, eta antzerkirako tarte ere izango dute. Ekitaldia EHUKo Gipuzkoako campusak antolatu du, Soinuaroa zikloaren barnean. Frantxoa Cousteauk ikuskizunaren xehetasun gehiago eman dizkigu.

■ **Manex Erdozainzi Etxarten olerkiak aukeratu dituzue. Nor izan zen Erdozainzi?**

Ibarla herriko sema bat izan zen, fraide frantziskotar eta irakaslea. Parisen eta Frantziako beste hainbat tokitan bizi izan zen. Amnesty Internationaleko kide eta Akitaniako frantziskotarren buruzagia izan zen. Bi olerki liburu idatzi zituen: *Hinki-Hanka* eta *Bizitza pilpirak*. Horietatik 22 olerki aukeratu ditugu; sei kantuz eskainiko ditugu eta beste hamaseiak errezi-tatu egingo ditugu. Batzuk



PIERRE RUAD

Bordaxuri taldeko Hegi, Estekahandi eta Cousteau Donostian izango dira gaur, Erdozainziri buruzko ikuskizuna eskaintzeko.

antzerki moduan ere ematen ditugu, eta antzerki zuzendaria Francise Basterot da.

■ **Zeintzuk dira Lur Ezpalak saioko gai garrantzitsuenak?**

Ikuskizuna hiru zatitan banatu dugu. Lehenengoan aipatuko dugu haurtzaroa, Manex umea zen garaia. Olerki bat amari eskaintzen dio, bestea *etxe gibe-leko haritzari* buruzkoa da... Bigarren zatian Manexen kezak azaltzen dira, bi gerrate mundialetako presoekin. Gizarteari, heriotzari, gerrateari eta giza-

kiaren barnetasunari buruzko gogoetak egiten ditu. Azken zatian une alaiagoak eskaintzen saiatzen gara.

■ **Non eskaini duzue ikuskizuna, eta zer harre-ra izan duzue?**

Donapaleun hasi ginen otsailean, gero Miarritzen, Senperen, Bilbon... Batzuek uste dute poesia errezitaldi batekin aspertuko direla, baina bizitzako gaiez aritzen gara. Hitzak du lehentasuna, baina musika eta antzerkiaz baliaturik.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

GERNIKA

► **Roge Blascoren dokumentala.** Ekuator Gineara eginiko bidaia pertsonalaren inguruko dokumentala. Abenturaren eta naturaren topaketak. Kultur etxean, 19:30etan.

HITZALDIA

ANOETA

► **Euskal zibilizazioaren sustaiak.** Gerarta Arotzenaren eskutik, Udaletxean, 19:30etan.

AZPEITIA

► **Hego Euskal Herriko bake prozesua Iparraldeko ikuspegitik.** Aitonena aretoan, Noel Elordaren eskutik, 20:30etan.

BEASAIN

► **Matrikulazioa eta Hizkuntz**

Ereduak. Joan Mari Elortzaren eskutik, ikasleentzako hitzaldia. Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30etan.

BILBO

► **Lanaren eta langabeziak osasunean duen eragina.** Jesus Uzquidun eta Juanjo Rodriguezen eskutik, Burtsako aretoan, 19:30etan. Osasunerako alternatiben VIII. jardunaldiak.

► **Las lenguas del mundo.** UNESCO etxeak antolatutako mahai-ingurua. Partaideak: Felix Marti, Miquel Siguán, Carme Junyent eta Irmela Neu. Bilboko Merkatal Ganbaran, Enkarterri aretoan, 19:30etan.

DONOSTIA

► **Chiapasko San Andres herri autonomoko emakume ehuleen kooperatiba indigenak.**

Lanen erakusketa eta solasaldia, Yolanda Castrorekin. Egiako kultur etxean, 18:00etan.

► **Getariako txakolina: fruta usain handikoa eta zapore finekoa.** Jose Antonio Ameztoren eskutik, Ikasbide kultur elkartearen, 20:00etan.

GASTEIZ

► **Epilepsia eta bere tratamendua.** Fernando Martonez Muerzaren eskutik, Luis de Ajuria kultur aretoan, 19:30etan.

IRUÑEA

► **Euskararen lege berria. Lingua Navarrorum XXI. Mendean.** Oinarriak taldeko partaide batekin, Donibaneko Irrintzi euskaltegian, 20:00etan.

LASARTE

► **KIUBaren hitzaldiak.** Kultur

etxeko hitzaldi aretoan, 16:30etan.

LEIOA

► **Kurdistan, herri ahaztua.** Newroz elkartearen kide baten eskutik, Balioanitzetarako gelan, 19:30etan.

MUNGIA

► **Eduardo Chillida, 1948-1998.** TKEko ekitaldi aretoan, 19:00etan.

ZARAUTZ

► **Balkanak mintzagai.** Irene Cormanzenaren eskutik, Zarauzko kirol elkartearen egoitzan, 20:00etan.

DANTZA

GASTEIZ

► **Al compás del tiempo.** Cristina Hoyos Balleta, Principal Antzokian, 20:30etan.

LEIOA

► **Egonia.** Unibertsitateko Areto Nagusian, 12:00etan.

ERAKUSKETAK

BERGARA

► **Bergarako Orfeoia 75. urteurreneko erakusketa.** Maiztaren 30a arte, Udal aretoan.

BILBO

► **Partido Pop.** Ramon Churrucaren Abisal espazioan, ekainaren 4a arte.

► **Zoran Musicen lanak.** BBKko erakusketa aretoan.

DONOSTIA

► **Aldo Sadaren lanak.** Lugaritz kultur etxean, maiatzaren 31a arte.

TOLOSA

► **Lurra zure eskuetan.** Erakusketa interaktiboa, Aranburu jauregian, ekainaren 12a arte.

BESTELAKOAK

ASTEASU

► **Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak.** Herriko plazan, 16:30etan.

ERREENTERIA

► **Haiza mindu gabe.** Jon Gaztelumendik Puerto de Santa Mariako kartzelan idatzitako ipuinliburuaren aurkezpena. Joxe Mari Karrerek liburuaren zenbait pasarte irakurriko ditu. Xenpelar etxean, 20:00etan.

ORTUELLA

► **Ikastetxeen arteko antzerki, kanta eta bertsoen I. Topaketak.** Ortuellako PATek antolatuta. Gaur, bihar eta etzi.

SANTURTZI

► **Ipuin-kontaktak.** San Juane-ko liburutegian, Hiruki taldearen eskutik, 17:15etan.